



1980. urtean Gasteizen zalaparta sortu zen. Herri mugimenduen bilgunea izango ziren Gasteizko Txosnak abian jarri ziren: aisialdi eta jai eredu alternatibo baten iturria, hamaika borroken plaza, indarrean zeuden joera eta balioak eraldatzeko aukera, parte hartzeko aukera, ikasteko aukera... Horiek ziren Gasteizko Txosnak. Aukera bat, bai. Bainan behar bat ere bai. Gasteizek behar zuen iturri berria.

Aurten, 40 urte igaro diren honetan, herri mugimenduek sortu eta kudeatutako gune feminista, herrikoi, parte-hartzaile eta euskaldunak etenaldi bat egitea erabaki genuen. Bainan horrek ez du esan nahi gure jarduna bertan behera geratu denik: beti egon gara lanean, azken 40 urte hauetan lanean egon garen bezala: astero bilerak, koordinazio planak, baimenak... Izen ere, Txosna Batzordea osatzen dugun kolektiboa zein hiriko beste mugimendu, kolektibo eta elkarteko kalean jarraitzen dugu. Ez gara inoiz bertatik joan. Kalean jarraitzen dugu kalea garelako eta kalean garelako ere. Kalean gara, kalea garelako. Egunez-egun, iñurri lana eginez gu guztiok gara kaleak eta plazak kolorez betetzen eta ureztatzen gabiltzanak.

Argi dugu. Gure lehentasuna, une honetan, osasun alarma egoera honi modu kolektiboan aurre egitea da. Izen ere, guzti osasuna eta zaintza ezinbestekotzat ditugu. Kontziente gara: aurtengo Gasteizko Jaietako beste forma bat hartu beharko dute. Bainan horrek ez du esan nahi desagertuko garenik. Nola desagertuko da kalea? Eta nola desagertuko gara gu geu kalea izanik?

Hasieratik, Gasteizko Udalak jaiak bertan behera uztarearen erabakiarekin gure desadostasuna azaleratu genuen. Azalpena? Ulertzeko simplea: gure hiriko jaiak existitzen badira eta egun ezagutzen ditugun modukoak baldin badira, atzetik lanean dauden eragile eta kolektibo guztiei esker da. Horregatik sentitzen gara parte, horregatik maite ditugu gasteizko Jaiak. Horregatik esan dezakegu, harro gainera, gu geu ere bagarela Gasteizko Jaiak.

Txagorritxu, Judimendi, Zaharraz Harro, Adurtza... Gure hiriko auzoetan erakutsi dugu posible dela jaiak ospatzea segurtasun neurriak betetzen. Ez dira ezagutzen genituen jaiak, ez dira gustokoentzutik ditugun jaiak. Jakin, badakigu, baina posible dira: Udalaren traben gainetik gure lana aurrera eraman eta jai eredu berriak errealitate bihurtu ditugu. Posible izan, badelako.

Agerraldi honen bitartez ere, eta artista, musikari, antzerkilari edota teknikari ezberdinek gure aurretik egin bezala, COVID-19aren isurriteak kulturan izandako eragina eta instituzioek emandako erantzun eza salatu nahi dugu. Krisi honen uarretik, kultur arloko protagonistak instituzioen partetik bakartuta bazeuden, orain zer esanik ez. Zer izango lirateke konfinamenduaren unerik latzenak kulturalik gabe? Zer izango lirateke konfinamenduaren unerik latzenak musikari gabe? Eta pelikularik gabe? Eta zuzeneko emisorik gabe? Eta aldiz, zein izan da instituzioen erantzuna? Bigarren plano batean uztea. Kulturak jaiak eta gure egunerokotasuna elikatzen du, baina guzti osasuna da, instituzioena ere, kultura elikatzea eta baldintzak eta errekontsoak jartzea horretarako. Gu, horretarako prest gaude eta hala erakutsi dugu gaurkoan ere.

Hemen bildu garenontzako irudikaezinak dira jaiak aldarrikapen eta eduki politikorik gabe. Bai, jaun-andreok, jaiak musika, kontzertuak, irribarreak, tragoak eta zoriantasuna dira.

Gasteizko jaiak egunerokotasunean presente ditugun gatazkak, nahiak, haserreak, zapalkuntza, ametsak... plazaratzeko gune bat dira ere. Hortaz, urtean zehar Txosna Batzordea osatzen dugun kolektiboa aurrera daramatzagun borroka guztiak ere presente egon dira eta presente egongo dira.

Aurtengoan, ordea, azkenengo 40 urteetako txosnaguneari "normaltasun berriak" etenaldi bat egokitzen dio, baina guk, bien bitartean, kaleak betetzen jarraitzen dugu, egunez-egun egiten dugun gisara. Borroka feministak ehuntzen jarraitzen dugu, euskal preso politikoentzat etxeratzea lau haizetara oihukatzen dugu, gazteok bizitzaren hautua egiten dugula aldarrikatzen jarraitzen dugu, munduko beste herrialde eta borrokekin distantzia txikitzen jarraitzen dugu, komunikatzeko modu alternatiboak daudela aldarrikatzen jarraitzen dugu, auzoak biziberritzen jarraitzen dugu... Finean beste bizi eta herri bat posible dela erakusten jarraitzen dugu.

Hala egin dugu eta hala egingo dugu. Ez ginelako inoiz joan. Ez garelako joan. Ez garelako joango. Kalea garelako eta kalean garelako.



En 1980 surgió el revuelo en Vitoria. Se pusieron en marcha las Txosnas de Gasteiz que serían el punto de encuentro de los movimientos populares: el comienzo de un nuevo modelo alternativo de ocio y fiesta, la plaza de muchas luchas, la posibilidad de transformar tendencias y valores vigentes, la posibilidad de participar, de aprender... Esas eran las Txosnas de Vitoria. Una oportunidad, sí. Pero también una necesidad.

Este año, transcurridos 40 años, decidimos hacer una pausa de este espacio feminista, popular, participativo y euskaldun; todo esto creado y gestionado por los movimientos populares. Pero eso no quiere decir que nuestra actividad haya cesado: siempre hemos estado trabajando, como hemos estado trabajando durante estos últimos 40 años: reuniones semanales, planes de coordinación, permisos, de hecho, tanto los colectivos que formamos la Comisión Txosna como otros movimientos, colectivos y asociaciones de la ciudad seguimos en la calle. Nunca nos hemos ido de allí. Estamos en la calle, porque somos la calle. Día tras día, todas nosotras somos las que estamos llenando de color y regando calles y plazas.

Lo tenemos claro. Nuestra prioridad, en este momento, es hacer frente de forma colectiva a esta situación de alarma sanitaria. De hecho, consideramos imprescindible la salud y el cuidado de todas. Somos conscientes de que las Fiestas de Vitoria de este año tendrán que tomar otra forma. Pero eso no quiere decir que desaparezcamos. ¿Cómo va a desaparecer la calle? ¿Y cómo vamos a desaparecer siendo nosotras mismas la calle?

Desde el principio, exteriorizamos nuestra disconformidad con la decisión del Ayuntamiento de Vitoria de suspender las fiestas. ¿Explicación? Simple de entender: si las fiestas de nuestra ciudad existen y son como las que hoy conocemos, es gracias a todos los agentes y colectivos que están trabajando por detrás. Por eso nos sentimos parte, por eso nos gustan nuestras fiestas. Por eso podemos decir, además con orgullo, que nosotros también somos las Jaias de Vitoria.

Txagorritxu, Judimendi, Zaharra Harro, Adurta... En los barrios de nuestra ciudad hemos demostrado que es posible celebrar fiestas cumpliendo con las medidas de seguridad. No son las fiestas que conocíamos, no son las fiestas que más nos gustan. Saberlo, lo sabemos, pero son posibles: por encima de las trabas del Ayuntamiento hemos llevado a cabo nuestro trabajo y hecho realidad nuevos modelos festivos.

También a través de esta comparecencia, y al igual que otras artistas, músicas, o técnicos, queremos denunciar el impacto cultural y la falta de respuesta institucional ante el COVID-19. Si desde el comienzo de esta crisis, las protagonistas del ámbito cultural estaban aisladas de la parte institucional, ahora ni que decir tiene. ¿Qué serían los momentos más duros del confinamiento sin cultura? ¿Qué serían los momentos más duros del confinamiento sin las músicas? ¿Y sin películas? ¿Y sin emisiones en directo? Y en cambio, ¿cuál ha sido la respuesta de las instituciones? Dejarlo en un segundo plano. La cultura alimenta las fiestas y nuestro día a día, pero es responsabilidad de todas, también de las instituciones, alimentar la cultura y poner condiciones y recursos para ello. Nosotras, estamos dispuestas a ello y así lo hemos demostrado hoy.

Para las que aquí nos hemos reunido hoy son inimaginables las fiestas sin reivindicación ni contenido político. Las fiestas son música, conciertos, sonrisas, tragos y felicidad.

Las fiestas de Gadeaiz son también un espacio donde se reflejan conflictos, deseos, enfados, opresión, sueños que tenemos presentes en el día a día. Por lo tanto, a lo largo del año todas las luchas que llevamos a cabo los colectivos que formamos la Comisión de Txosnas también han estado presentes y estarán presentes.

Este año, sin embargo, la "nueva normalidad" ha traído una pausa al txosnagun de los últimos 40 años, pero nosotras, mientras tanto, seguimos llenando las calles. Seguimos tejendo la lucha feminista, clamamos a los cuatro vientos la vuelta a casa de las presas políticas, seguimos reivindicando que las jóvenes optamos por la vida, seguimos haciendo mas pequeña la distancia con solidarizandonos con otros países y luchas del mundo, seguimos reivindicando que hay formas alternativas de comunicación, seguimos revitalizando los barrios, seguimos demostrando que otra forma de vivir es posible.

Así lo hemos hecho y así lo seguiremos haciendo. Porque no nos hemos ido. Porque no nos iremos. Porque somos calle y estamos en la calle.